

Oraingoan, nahi eta ezin

3-2 galdu du Tolosak
Arenasen aurka;
7. jarraitzen du
sailkapenean ▶ 2



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2006-03-28 ▶ IV. urtea ▶ 848. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

700 mendizalek hartu dute parte Aizkardiren 38. ibilaldian

VILLABONA ▶ 499 lagunek aukeratu zuten ibilaldi luzea, eta 216k motza; gustura dira antolatzaileak ▶ 4



Mendizaleak, igandean, mokadutxoa hartzen, Praxkuko atsedenlekuan. J. SAIZAR



J. ASTIBIA

Partaidetza handia izan du 11. Aerobik Maratoiak

IBARRA ▶ 85 lagun aritu ziren Belabieta kiroldegian; 650 euro bildu dituzte Ibarrik Misio Taldearen lau proiektuak laguntzeko ▶ 6

IBARRA-LEITZA ▶

Otaño eta Rekondo Urrezko Txapelketatik kanpo gelditu dira

Etxebeste eta Txapartegi pasatu dira; leitzarra gazteetan lehiatuko da ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Arantzazura ibilaldia, «bakea eskatuz»

Autobusak antolatu dituzte eskualdean ▶ 5

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Laskorain eta Ibarra hiru puntuak lortuta itzuli dira etxera

Aurrerako talde gazteak ere 2-1 irabazi du, eta postu bat igo du ▶ 2, 6, 7

FUTBOLA ▶

3-2 galdu dute Tolosakoek Arenas taldearen aurka

Hurrengo partidua etxean jokatu dute urdinek, larunbatean, eta Santurtzi izango dute aurkari



Tolosaren eta Arenasen arteko aurreko partidu bat, Berazubiko futbol zelaietan. IÑIGO TERRADILLOS

ESTI EZEIZA

Asteburu kaskarra izan da hau Tolosa CFko mutilentzat. Larunbatean, hiru eta bi galdu zuten urdinek Arenasen aurka. Partiduko lehen zatian erabaki zen ia emaitza; hasiera eskasa egin zuten eskualdekoek, hala, bi eta hutsekoarekin hasi ziren irabazten Getxokoak. Ondoren, Tolosako Antxonon golak etorri ziren, eta animoak altxatuz markagailuak buelta emango zuela zirudien. Baina bizkaitarrak ez ziren kokildu eta garaipena haiek lortu zuten. Bigarren zatian oso ondo jokatu zuten arren, jokaldia erabakita zegoen ordurako. Lehia gogorra egon zen taldeen artean, biak ere promozioko postuengatik borrokan ari baitira.

Hurrengo partidua etxean

jokatuko dute Jose Manuel Lu-luagaren mutilek. Berrito, talde bizkaitar bat izango dute aurkari, Santurtzi, hain zuzen ere. Hauek sailkapeneko 17. postuan daude, jaitsieratik gertu.

Denboraldi ona daramate Tolosakoek. Honakoa 29. jardunaldia izan da, eta hamar gol sartu zituzte denera. Hau izan da eskualdekoek galdu duten zazpigarren partida. Orain, sailkapeneko zazpigarren postuan daude, Eibar eta Areetarekin lehian.

Asteburu honetako emaitzen ondoren, gauzak ez dira gehiegi aldatu sailkapeneko lehen postuetan: Sestaok jarraitzen du gorenean, eta hamaika puntuko tartea ateratzen dio Gernikari. 7. da Tolosa, 42 punturakin. Azken lekuan Salvatierra dago, jaitsieratik libratzeko aukera gutxiarekin.

SAILKAPENA ▶ 3. MAILA

Taldea	Puntuak
1. Sestao	68
2. Gernika	57
3. Baskonia	49
4. Amorebieta	49
5. Laudio Sall.	46
6. Arenas	44
7. Tolosa	42
8. Eibar	41
9. Lagun Onak	39
10. Elgoibar	38
11. Beasain	35
12. San Pedro	35
13. Indautxu	34
14. UPV-EHU	34
15. Aurrera Vitoria	33
16. Zamudio	32
17. Santurtzi	30
18. Aurrera O.	26
19. Getxo	26
20. Salvatierra	18

AISIA ▶

Udalekuetan izena emateko deialdia

Urtero bezala, 7 eta 13 urte bitarteko gaztetxoentzat Udalekuak antolatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Programaren barruan, bi hizkuntza eredu egongo dira: euskara hutsezkoa eta elebiduna. Antolatzaileen iritziz, hizkuntza ereduaukeratzerakoan haurren errealitatearekin bat datorrena hartzea gomendatzen da, «gaizki egindako hautaketak aisirako eta gozamenarako izan daitezkeen egunak esperientzia txarrean bihurtzea eragin baitezake.» Izena emateko epea martxoaren 30ean irekiko dute, eta apirilaren 7an amaitu da. Tolosako Gazte informazio bulegoan (Kultur Etxean, 943 67 03 83) egin ahal izango da ohiko ordutegian, edo Gipuzkoako beste edozein gazte informazio bulegotan, edo www.gipuzkoako.net/oporraldi helbidean. Apirilaren 24 eta 25ean emango dituzte zozketan onartutako izenak. Hemen plaza lortu dutenek behin betiko izen-ematea maiatzaren 2tik 10ra bitartean egin beharko dute.

HEZKUNTZA ▶

KZguneko apirileko ikastaroak

Zabalduteko dagoeneko Tolosako KZgunean apirileko ikastaroetan izena emateko epea. Bi ikastaro emango dituzte, bata goizez eta bestea arratsaldean. Ikastaroak apirilaren 18tik 28ra bitarte izango dira, lehenengoa 11:00etatik 13:00etara, eta bigarrena 18:00etatik 20:00etara. Ikastaro hauek Internet mundua ezagutzeko eta erabiltzen ikasteko balio dute. Interesatuak Tolosako KZgunera joan beharko dute izena ematera, edota 943 65 37 20 telefonora deitu beharko dute.

HEZKUNTZA ▶

Graduatu titulua lortzeko proba askeak

Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba libreetan izena emateko epea ireki dute dagoeneko Helduen Heziketa Iraunkorrean (HHI). Lehenengo matrikula epea apirilaren 7an amaituko da, eta bigarren aldia apirilaren 24tik 27ra. Interesatuak HHiren Tolosako egoitzara joan behar dute. Azterketa maiatzaren 16an izango da, egoitza berean. Izena eman nahi duenak baldintza hauek bete beharko ditu: EAEn bizi-zea, 18 urte beteta izatea, eta DBHn matrikulatua ez egoitza.

POLITIKA ▶

Euskal Herriaren etorkizuna mintzagai

Orain Herria, orain bakea proposamenaz eta hemendik aurrera egin behar denaz jarduteko, hitzaldi bat antolatu du Tolosako Batasunak. Ekitaldia ostegunean egingo da, arratsaldeko zortzietan, udaletxe batar aretoan. Batasunaren iritziz, «prozesu demokratikoa martxan jartzeko aukera sortu da, eta ezin dugu aukera hau alferrik galtzen utzi. Horregatik, euskal herritar guztiok aktiboki parte hartzeko garaia iritsi da: herritarrok aktibatzeko garaia, mobilizatzeko garaia». Duela 16 hilabete, Batasunak Anoetako Proposamena aurkeztu zuenean, bertan «bake prozesu baterako metodologia bat aurkeztu zuen, non herritar guztion iritzia kontutan hartzea ezinbestekoa jotzen zen». Hori dela eta, ezker abertzalekoek, bi mahai proposatzen dituzte, eta mahai bakoitzean egin beharreko lanak ere zehaztu dituzte. Horren guztiaren gainean jardungo dute osteguneko hitzaldian.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Eskubide guztiak euskal herritar orori, Euskal Herri osoan

Ukaezina da azken urte haue-
tan Euskal Herriak bizi izan di-
tuen uneak gatazkatsuak izan-
dik ere, eraikuntza prozesuan
eman diren urratsa garrantzi-
tsuak izan direla. Euskal Her-
riak ofizialki, eskubide subje-
tu gisa ez du aitortzarik eta
bertan bizi garen ia hiru milioi
herritarro, Espainiako esta-
tuak zein Frantziakoak euskal
herritar gisa existentzia bera
ukatzen digute. Pairatzen du-
gun eskubideen ukapen hon-
ek gatazka eragin du mende-
etan zehar, eta arazo politikoak

ren konponbide prozesuaren
abian aurkitzen garen hone-
tan, eskubideen aitortza eta
urraketaren inguruko auziak
garrantzi berezia hartuko du
etorkizunean.

Udalbiltzak, Euskal Herria-
ren naziotasunaren aitortzaren
instituzio nagusi gisa, euskal
herritarren eskubideen aldeko
dinamika bultzatzeko konpro-
misoa hartu du eta konpromiso
hori nola burutuko den ardura
du.

Horretarako, Udalbiltzak
hainbat eragile politiko, sindi-
kal eta sozialekin elkarlanean
eta milaka ekarpenarekin es-
kubide alorrean ariketa prakti-
koa abiatu zuen. Ekimen honen
ondorioz, Nazio Batuen Agiria,
Giza Eskubideen Aldarrikapen
Unibertsala, eskubide zibil eta

politikoen, eskubide sozioeko-
nomiko eta kulturei buruzko
hitzarmenak eta nazio itunak
jasoz eta Euskal Herrira egoki-
tuz Euskal Herriaren Eskubi-
deen Karta kaleratu zuen
Udalbiltzak 2002an.

Geroztik eta beste askoren
artean Udalbiltzaren eraginez,
Euskal Herriaren Nazio Erai-
kuntzan indartzeko eta Gataz-
karen Konponbidea bideratze-
ko egindako ekarpenak, nora-
bide egokian egindako
aurrerapaso nabarmenak de-
ritzogu: hor dira Oinarritzko Hi-
tzarmen Demokratikoa, Akor-
diorako Mahaia, Nazio Garape-
neko Biltzarra, Eztatibada
Gunea, Nazio Plana... besteak
beste.

Euskal Herrian ematen den
gatazka eskubideen ukapenen

inguruko gatazka dela ontzat
ematen badugu, ez dago gataz-
ka konpontzerik euskal herri-
tar orori Euskal Herri osoan
eskubide guztiak aitortzeko
eta egikaritzeko aukerak ber-
matzeko bideak jartzen ez di-
ren bitartean.

Hain zuzen ere, 2005eko urri-
ko Lehen Nazio Eztatibadaren
ildotik eskaera bat luzatu
Udalbiltzari: aurrez eginiko
Euskal Herriaren Eskubideen
Kartaren harira, eskubide ho-
rien inguruko urraketari buruz-
ko txostena osatu eta eztabai-
darako aurkez zezan.

Gaur da unea 2006ko Aberri
Egunaren bezperan eta auke-
raz beteriko une garrantzitsua
bizitzen ari garen honetan
—bai eraikuntza zein gatazka-
ren konponbideari begira—

Udalbiltzak dei eta eskaera ze-
hatza egin die Euskal Herrian
eraikuntzaren eta eskubideen
alor desberdinetan lanean
diharduten eragilei, erakun-
dei, sindikatuei, dagokien arlo-
tik egin dezaten eskubideen
urraketaren inguruko ekarpe-
na. Era horretan metodologia
parte-hartzaileaz egindako
ekarpenaz, Udalbiltzak sintesi
modura uztaileko behin-
behineko txostena elaboratze-
ko konpromisua hartu du, eta
ondoren Nazio Batuen Erakun-
deko Eskubide Kontseilua eta
Nazio Garapenaren Biltzarren
eskuetan jarriko du, ezta-
baida zabala bideratu dadin.
Lan eskerga baina gure ustez,
ezinbestekoa da une garrantzi-
tsu honetan.

ANTTON IZAGIRRE ▶ TOLOSA

ARETO FUTBOLA ▶

Laskorain garaile, Altamiraren aurka

5 eta 8ko emaitzaz mendean hartu zuten horitxoek talde bilbotarra; hala, zazpigarren dira orain sailkapen nagusian

ERREDAKZIOA

«Aparteko garaipena» erdietsi
zuen Laskorainek joan den la-
runbatean Bilboko Rekalde
auzoan jokaturako neurketan.
Ikastolakoek sailkapenean hi-
rugarren tokian dagoen Alta-
mirari egin zioten bisita, eta 5
eta 8 irabazi zioten.

Norgehiagoka «aurrez irudi-
katua baino samurragoa»
suertatu zen horitxoentzat.
Epaileek hasiera adierazi eta
berehala sartu zuen Ismael Te-
lletxeak buruz korner batean
Laskorainen estreinakoa, eta
Altamirakoek hurrengo jokai-
dian banakoa egin bazuten ere,
ez zuten horitxoek asko itxaron

Saldiasen bitartez bigarrena
egiteko.

Markagailuan aurre hartu
eta gero, ondorengo minutue-
tarako atzeko zuloan irmo itxa-
ron eta kontraerasora abiadu-
rarekin irteeta zuten jomuga,
aurkariak utzitako espazioak
aprobetxatuz; bete ere ederki
bete zuten. «Gogotik eta ondo»

egin zuten lan atzealdean, eta
ondo irten ziren kontraeraso-
ra. Honela, atsedendaldirako 2
eta 4 ziren aurretik, Telletxe-
aren eta Saldiasen beste bi golei
esker.

Bigarren zatiaeren hasieran
iritxi zen partida behin betiko
erabaki zuen jokaldia. Domen-
txek penalti bat gelditu zuen
eta balizko 3 eta 4tik 2 eta
5ekora pasatu zen partida hu-
rrengo jokaldian, Telletxeak
sarturiko hirugarrenagatik. Al-
tamirakoek amore eman zuten
eta ondorengo minutuetan Ba-
rriolaren, Saldiasen eta Murgi-
ren golak iritsi ziren, denak
kontraerasora, markagailua 2
eta 8 ipiniz.

Azken minutuetan bilbota-
rrek apaindu zuten emaitza,
baina puntuak ondo lotuak

zeuden ordurako. Garaipen ho-
nekin zazpigarren jarri dira
sailkapenean Egizabalen muti-
lak. Domentxe, Yustos, Telle-
txea, Saldias, Gil —hasierako
bostekoa— Amatriain, Barriola,
Kalixto, Murgi eta Sanchez
jokalarriak eskuratu zuten, hain
zuzen ere, garaipena.

Asteburu beltza gazteentzat

Harrobiari dagokionean ez zen
jardunaldi ona izan talde hori-
txoentzat. Izan ere, Jorge *Mou-
rinho*-ren taldeak 1 eta 5 iraba-
zi zuten Irunen; eta Murua *Ca-
macho*-renak, berriz, 2-8 galdu
zuten. Usabalgo kantxan. Pra-
dosen nesken taldeak ere ezin
zuten punturik lortu Ordizian
jokatutako neurketan, 4 eta 3
galdu baitzuten.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: emio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Tolosa. Sam, etxe abikitua salmentan. Oso egoera onean.
Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logetekin, terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.
Tolosaldea. Marbxan dagoen taberna-jate txea alokairuan. Informazio pertsonala.
Alegia. Taberna alokairuan. Informazio pertsonala.
Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu. Bista oso onak.
Amezketza. Etxe abikia salgai.
Belautza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.
Asteasu. 250 m²-ko etxe bifamiliarra, eraikuntza berrikoa!
Bidanía. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.
Hernalde. Etxe bifamiliari ederra

salmentan. Eraikuntza nahiko berria.
Ibarra. Etxe adosatua salmentan. Oso egoera onean.
Ibarra. Garaje ibxi eta irekiak salgai.
Ibarra. Etxebizitza eta lokala, dena bat. Profesionalentzat egokia. Estreinatze gutzit berritua izan ondoren.
Ibarra. 2 logela, egongela, sukalde, bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.
Ibarra. Euskalerria kalea. Oso egoera onean. Hiru logela, egongela, sukalde eta bainugela. Berokuntzarekin.
Irura. Oso berezia. Eraikuntza nahiko berria. 80 m². Bi logela, egongela-sukaldea tximiniarekin, bainugela. Trastelekuarekin.
Irura. Baxua jardinarekin. 95 m². 3 logela, 2 bainugela, sukalde eta egongela. Trasteleku eta garaje

bikoitza ibxia.
Gabria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.
Legorreta. Eraikuntza nahiko berria. 2 logela eta 2 bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin.
Ordizia. 2 logelako etxebizitza salmentan. 189.320 euro.
Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai. 168.285 eurotik aurrera.
Tolosa. Belate. 3 logela, sukalde-egongela, bainugela. 264.450 euro.
Tolosa. Zumalakarregi. 165m²-ko etxebizitza salmentan. Trastelekuarekin.
Tolosa. Foruen etorbidean gutzit berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!
Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

Tolosa. Berazubi. 3 logela, egongela, sukalde, bainugela. Gutzit kanpoaldera.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m²ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m²ko bulegoa alokairuan.
Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.
Tolosa. Usabal. 2.000 m²-ko pabilioi industriala alokairuan.
Tolosa. Guadalupe. Pabilioia, 228 m² beheko aldean eta 148 m² goikaldean. Prezio interesgarria!
Zizurkil. Eraikuntza berriko 640 m²-ko pabilioia. 9 metroitako altuera. Kamioientzako bi sarrera, bulegoak, komunak, aparkalekuarekin...
Zizurkil. Etxe abikia salmentan. Oso egoera ona.

ZIZURKIL ▶ AGENDA 21

Diagnosiaren baitan, herri batzarrera deitu dute

Gaurko antolatutako bilera, Atxulondo kultur etxean, arratsaldeko zazpi eta erdietan

ERREDAKZIOA

Herri batzarrera deitu dute gaur, 19:30ean, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. Tokiko Agenda 21 prozesuak herriarren bizi-kalitatea hobetzeko herri plan bat lantzea du helburu, eta hainbat fasetan banatzen da. Momentu honetan

udalerrriaren egoera islatuko duen diagnostia burutzen ari dira Zizurkilen. «Horretarako beharrezkoa da herritarrek hainbat arlotan Zizurkilgo egoerari buruz duten ikuspegia eta iritzia ezagutzea», diote Udalekoek.

Azaroaren 17an Atxulondo kultur etxean bertan egindako

herri batzarrean herriaren alderdi negatibo eta positiboak adierazteko aukera izan zuten bertara joan ziren 23 lagunek. Hiri kalitatea eta mugikortasun arloan agertu ziren alderdi negatibo gehienak. Besteak beste, herrigunearan protagonistak autoak direla adierazi zuten eta oinezkoentzat lekurik ez

dagoela. Bertaratutako eniri-iriziz, herri nortasuna lortzeko errepidea kanpora atera eta zentro neuralgiko bat sortu behar harko litzateke Zizurkil Behan. Bestalde, Zizurkilgo bi gune nagusien arteko lotura eskasa dela eta auzoak gaizki komunikatuta daudela adierazi zuten. Etxebizitza, zerbitzuak, ekono-

mia, udal kudeaketa eta euskara ere aztergai izan zituzten.

Batzarrean jasotako ekarpenekin udalerrriaren diagnostia osatuko dute, eta dokumentu horretatik abiatuz, zenbait helburu finkatuko dituzte. Horiek izango dira udalerriri iraunkorrerago lortzeko diseinatutako den Ekintza Planaren oinarriak. «Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da Agenda 21 proiektuan, eta horregatik, berriz ere herri batzarrerako deialdia zabalduko dugun», diote.

AMASA-VILLABONA ▶ MENDIA



Ibiltariak aldapa gora ere egin behar izan zuten, gero Lapurbuloko anoa-postuan indarrak hartu eta bideari ekiteko; amaieran, Leitzarango tunelak zeharkatu zituzten. J. SAIZAR



Sorginen Zubia zeharkatu zuten mendizaleek Leitzarano ibaiaren bestaldera pasatzeko. JOXEMI SAIZAR

700 mendizale Aizkardiren bi ibilaldietan

Antolatzaileak gustura agertu dira 38. Ibilaldiko parte-hartzearekin

IMANOL GARCIA

Jendetsuak izan ziren herenegun Aizkardi Mendizale Elkarrekin antolatutako bi ibilaldiak. Martxa luzean 499 lagunek hartu zuten parte eta 483k amaitu. Martxa motzean, berriz, 216 atera ziren eta 212 iritsi amaiera puntura. 700 bat mendizale ibili ziren, beraz, Leitzarano bailaren inguruan.

Gustura daude Aizkardikoak 38. Ibilaldian parte hartutako jende kopuruarekin. «Martxa motza jartzeko komentatu ziguten, horrela jende gehiagok parte hartzeko aukera izango zuelako», adierazi dute. Eta horrela izateaz gain, ia baino lagun gehiagok hartu dute parte

martxa luzean. 400 inguru baziren aurreko urtean izena emandakoak, aurten ehun gehiago animatu dira. Gogoratu behar da 5. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuitorako baliagarria dela. Ibilaldi motzean, batez ere eskualdekoek hartu zuten parte. Izan ziren ere beste eskualde-rik ibilaldi luzea egin behar zutenei laguntzera etorri eta martxa motza egin zutenak.

Guztira, 30 lagun inguru ari ziren antolakuntzan. Lan handia suposatzen du horrelako egitasmo batek: bidea markatu, kontrolak, izen-emateak... Ohi bezala, 50 mendi-gai eta bakailoaren zozketarekin amaitu zuten ekitaldia.

Tolosaldea 2006-7
telefono listin berria,
Telefonika eta
Euskaltelekin
eguneratua,
Tolosaldeko etxe
guztietan egongo da
hurrengo uztailean.

LAGUNAK
ERRETEGI-PENTSIOK
LANGILEAK BEHAR DITU!

- Sukaldaria. (parte osorik)
- Zerbitzariak.
- Pentsiorako langilea.

943 833 701
629 335 403

AMEZKETA ▶

Astebururako sagardotegirako sarrerak salgai

Amezketako Ugarte auzokoei Astigarragako Petritegi sagardotegira joateko bazkaria eta autobusa antolatuta dute. Larunbatean joango dira, eta autobusa Ugarteko plazatik aterako da 12:45ean. Txartelak beharko dira horretarako, eta 30 euro ordainduta, autobusa eta bazkaria izango dute erosleek. Goikoetxenea taberna bertan daude salgai.

IKAZTEGIETA ▶

Kiroldegiko hainbat zerbitzu etenik daude

Urtarrilean hasitako kirolguneko teilatuko berrikuntzek espero baino gehiago iraungo dute; beste bi aste beharko omen dituzte obrak amaitzeko. Udalak abisu berria emanen du zerbitzuak prest noiz dauden esateko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leizaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ERLIJIOA ▶

Arantzazura ibilaldia egingo dute apirilaren 8an, «bakea eskatuz»

Hainbat autobus antolatu dituzte eskualdean bertara joateko, honela «fedea sendotzeko» eta «bakea lortzeko»



lako Arantzazurako ibilaldia ere jendetsua izan zen. HITZA

NEREA URBIZU

Fedea sendotu eta bakea eskatu izango da aurtengo leloa. Gipuzkoako kristauetako egindako deialdia luzatu dute Donostiako elizbarrutitik, aurten ere Arantzazura egingo duten ibilaldia dela eta.

Beti egin ohi duten moduan, erramu igandearen bezperan, Arantzazura igo egiten dira, Oñatitik hasita. Aurten apirilaren 8an izango da martxa. Zortzi kilometrotako ibilbide aldatu da, eta jende andana bildu izaten da.

Donostiako gotzain Juan Maria Ugartek gonbidapena egiterakoan, zera adierazi zuen: «Otoitza, gogoeta eta isiltasuna dira jendearen bidelagun, fededun bikain, bakezale eta kristau elkarte gozatzen duen Mariarengana iritsi arte». Beraz, «fedea sendotu nahian egiten den igoaldia» ere bada, eta «Mariarekin biltzeko ibilaldia», halaber.

«Aldapa horretan guztion itxaropenak eta ardurak eramango ditugu». Uriarteren hitzetan, «askoren kristau-nortasuna lausotzen ari dela dirudien honetan, guztioi ematen digu kemen adin guztietako beste sinesdunekin topo egite-

ak». «Fedea gure gizartearentzat etika, itxaropen eta bizi-poz iturri» dela ere gaineratu zuen gotzainak. Erromesaldi honen bakea lortzeko otoitz egitera bilduko dira.

2000. urteaz geroztik egiten duten ibilaldia da honakoa. Urtero jende andana bildu izan da, eta data beti ere berdina egiten dute harrezkerok, erramu egunaren bezperan.

Eskualdeko autobusak

Martxara joateko, beste hainbat puntutatik bezala, Tolosaldeko ere antolatuta dituzte autobusak. Sei bat izango direla aurreikusitako dute. Aurrerago zehaztuko dituzte orduak, baina seguruenik 07:30etik aurrera irtingo dira; eta urrutien dauden herriak lehenak izanik, beste guztietakoak jasoko ditu. Autobusa hartzeko txartelak behar dira, eta herri bakoitzean lor daitezke; parrokian galdetuz gero erosteko lekuak zehaztuko dituzte bertan.

Ibilaldirako argipenak

Goizean aterako dira Oñatitik, 09:30ean, alegia. Aurtengo bertsolari gonbidatua Amaia Agirre billabonatarra izango

GUTUN@K ▶

Erroldatua egon da Jabier Gordo

Ez zen nire asmoa izan gai honekin jarraitzea: Bidegoiango Udalak gure sendikoa den Jabier Gordo preso politikoa ikustera joateko laguntza ekonomikoak jasotzen ez ditugula edo baditugula argitzeko, ez bazen Juanjo Ugarte Bidegoiango alkateak emandako erantzunen ondoren. Horren gainean, frogagarriak diren gezurrak esan zituen Jabieren erroldaketari buruz.

Honek ezer suposatzen ez badu ere; izan ere, alkateak berak dioen bezala, herrian beste preso politiko bat dago eta haien sendikoei ere ez zaie inolako laguntzarik ematen.

Dena dela, nire anaiaren erroldaketaren gainekoa zuzentzeko behar eta obligazio morala sentitzen dut: 2004. urteko hauteskunde erroldan agertzen den bezala, Jabier Gordo Bidegoiaren erroldaturik dagoela dio, 1963ko apirilaz geroztik.

Ez dut gai honen inguruan gehiago zabaldu edo esan nahi, eta bukatutzat ematen dut, Juanjo Ugarteren eskuetik hel daitekeen edozein erantzun emantzat hartuz, eta aldi berean jendeak argibideak izan ditzan eta jakinaren gainean egon dadin erroldaketaz.

Azkenik, gure herrian bakoitza une garrantzitsu eta itxaropentsu hauetan, nagusitasun eta handikeria erakusten duten jarrerak —berdin dio zein alderdikoa den, kasu honetan EA—, ez dute datorren prozesu honetan lagunduko.

PEDRO GORDO ▶
BIDEGOIAN

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

igo autobusera!

} eta ezagutu aurrera doan unibertsitatea

informa zaitetz zure etorhizunari buruz

MARTXOA	HERRIA	TURIA	
28	TOLOSA	FORUEN enparantza	Egun osoa
29	ANDOAIN	LA SALLE BERROZPE ikastetxea	Goizez
30	ANDOAIN	GOIKO enparantza	Arratsaldez
1	DONOSTIA	GIPUZKOA enparantza	Goizez

www.mondragon.edu

IBARRA ▶

'Drogak larrugorritan' gaur, Gaztetxean

Drogak larrugorritan hitzaldia izango da gaur Ibarra Gaztetxean, 19:00etan hasita. Txus Congil Askagintzako ki-deak drogak zer eta zertarako diren, eta dituzten onurak eta arriskuak aipatuko ditu, besteak beste.

IBARRA ▶

Presoen bizi baldintzez hitzaldia



Begoña Uzkudun. UK HITZA

Ibarrara Herri Ekimenak antolatuta, bihar, Ibarra Kultur Etxean, 19:30etik aurrera, kartzelako bizi baldintzez hitzaldia eskainiko du 18 urtez kartzelan izan den Begoña Uzkudun errezildarrak. Horrez gain, ETArek su-etanaren ondotik egingo diren lan-jardungo dute Argitxu Martinez eta Irati Aranzabal Etxerat-eko ordezkariak.

OREXA ▶

Etzi izango da tutorearen bisita KZgunean

Tutorearen bisita etzi izango da Orexako udaletxeko gaberan kokaturiko KZgunean. Hain zuzen ere, 09:00etatik 13:00etara izango da bertan tutorea erabiltzaileen zalan-tzat argitu asmoz.

IBARRA ▶ 11. ELKARTASUNEZKO AEROBIK MARATOIA

Jende asko bildu du maratoiak, beste behin

85 parte-hartzaile izan ziren; 650 euro bildu dituzte, Ibaratik Misio Taldeak dituen lau proiektuak laguntzeko



«Giro polita» izan zen larunbat arratsaldean Belabietako kiroldegian bildu ziren kirolarien artean. J. ASTIBIA

IÑIGO TERRADILLOS

85 kirolari bildu ziren larunbat arratsaldean Ibarra Belabietako kiroldegian zuten 11. Elkartasunezko Aerobik Mara-

toira. 3 orduz aerobik irakasle-ekin eginiko taula ahalik eta egokien betetzea izan zen egin beharreko lana, eta denetan onena Mireia Andueza azkoitiarra izan zen; begiraleetan Aratz

Martinez donostiarrak irabazi zuen, senior mailan M. Luisa Carralero urnietarrak, eta junior mailan Lide Zubeldia ano-

Gipuzkoan egiten den aero-

SAILKAPENA ▶

Nagusia

1. Mireia Andueza	Azkoitia
2. Naia Yarrin	Donostia
3. Maialen Martin	Donostia
4. Virginia Franco	Andoain

Begiraleak

1. Aratz Martinez	Donostia
-------------------	----------

Senior maila

1. M. Luisa Carralero	Urnieta
-----------------------	---------

Junior maila

1. Lide Zubeldia	Anoeta
------------------	--------

bik zirkuitu baten barnean kokatzen den maratoia izan zen larunbatekoa, eta pasa den astean beste maratoi bat izan zela, eta hurrengo astean Donostian hirugarrena egingo dutela kontuan hartuta, antolatzailerak gustura azaldu dira parte-hartzaile kopuruarekin. Gipuzkoako hainbat herrietatik ezezik, Bizkaitik 12 bat lagun etorri ziren, Bermeotik, hain zuzen ere, eta denen artean sortutako «giro ona» ere azpimarratu dute.

Bestalde, aurreko urtean bezala, bertan bildutako dirua Ibaratik Misio Taldeak dituen lau proiektuak laguntzeko bideratuko dute. 650 euro izango dira, beraz, Ecuador, Eritrea, Honduras eta India bidean jarriko dituztenak.

IBARRA ▶ KIROLAK

«Ederki sufrituta», 1-5eko garaipena erdietsi du Ibarra areto futbol taldeak Portugaleteren aurka

Ibartarrak sailkapeneko bigarren postuan daude, Atenea liderrarekin berdinduta

ERREDAKZIOA

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Ibarra areto futbol taldeak larunbatean Portugaleteren aurka jokaturako partidari. Emaitza ikusita partida erraza izan zela dirudien arren, azken minuturarte sufritu beharra izan zuen talde ibartarrak. Hala adierazi du Jose Manuel Tobiassek, Ibarra-ko prentsa arduradunak.

Partida hasi eta 30 segundora estreinatu zuten markagailua ibartarrek Xabier Blanchen eskutik. Ibarra balaioa ederki mugitzen zuen jokaldi onak eginez, eta 3 minutura egin zuten bigarren gola penalti bidez; David Prados izan zen jaurtiketa egin zuena. Handik bi minutura, ordea, jokalaririk onenak utzi beharra izan zuen min hartu zuelako. Honek kalte handia egin zion taldeari,

eta Portugaletek hori baliatzen jakin zuen. Ondorioz, 1-2koa egin ahal izan zuten, eta emaitza horrekin iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian Ibarra indartsu irten zen, eta segituan egin zuten 1-3koa Hautsiren eskutik. Portugaletek erasoari ekin eta minutu zailak izan baziren ere, Ibarra partidari eutsi eta Unai Labakak batetik eta Ion Ander karrerak bestetik gol bana

egin zuten. 1-5ekoarekin amaitu zen partida, eta emaitza horrekin Ibarra bigarren da, lehen postuan dagoen Ateneak dituen puntu berekin.

Gazteek, berriz, ezin izan zituzten euren aurkariak garaitu; jubentzeko 5-3 galdu zuten Logroño taldearen aurka eginiko partidari, eta Uzturpe-Ibarra kadeteek 3-2 galdu zuten Las Korain ikastolako jokalarien aurka.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK
ETXESAGASTI

Aduna. Bifamiliarra salgai. 150 m² eta 60 m²-ko garajea. Kalitatezko berrikuntza. Luxuzkoa. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Amezketak. Etxea abikia salgai. Eraiki berria. Informa zaitez! Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Eraiki berria den etxebizitza ederra salgai. 3 logela.

Garaje ibxia. Oso polita. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Etxebizitza altua, igogailuarekin salgai. Egongela, sukaldia, 2 logela eta bainugela. Erabat berriua. Zonalde ona. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ibarra. Egongela, sukaldia, 3 logela

eta komunaz osatutako pisu ederra. Ezin hobea. 42.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.
Segura, Legorreta, Berrobi eta Albiztur. Egoera oneko baserriak, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. 3 logelako etxebizitza alokairuan. Bankuko bermea.

Villabona. 90 m²-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldia, 3 logela eta bainugela. Berritua. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Villabona. 59 m² erabilgarri dituen apartamentu polita. Berritua. Gazteentzako aproposa. Etxesagasti. 943 69 68 56.

AIZKORA ▶

Rekondo eta Otaño Urrezko Txapelketatik kanpo gelditu dira

Alde handi samarrarekin, Etxebeste eta Txapartegi gailendu zaizkie gazteei; Rekondok gazteen mailan jarraituko du

JAIONE ASTIBIA

Jon Rekondo leitzarrek eta Unai Otaño ibartarrak bukatu dituzte aurtengoz Banakako Urrezko Aizkolarien Txapelketako lanak. Urrezko mailari dagokionez. Larunbat gauean Asteasun jokaturako kanporaketan, hurrenez hurren, Joxe Etxebestek eta Luis Txapartegi irabazi zieten lehia.

Ikusmin handia eragin zuten kanporaketa saio hauek biek. Rekondo, bere gaztetasuna ezaugarri izanik, eskarmentuko Barberenari irabazita zetorren plazara; Otaño, berriz, Patxi Mindegia kanpoan utzita. Baina oraingoan gauzak ez zitzaizkien nahi bezala atera: alde nabarmenarekin, gainera, txapelketatik kanpo gelditu dira, helduek oraindik ere aizkoran gehiago egiten dutela erakutsi zuten; eta zorteak ere, aitatu behar, gazteen aurka egin zuela, egur loteetan.

Otaño ibartarra ederki hasi zen, zutikako 45 ontzakoan minutua eta gehiago kendu baitzion aurkariari; etzandakoan nahiko parean ibili ziren. Baina jokoa 60 ontzakoan hautsi zen Aizarnakoaren alde: ibartarra bi adarbegi ere atera zitzaizkion enborrean eta berak Hitzari adierazi dionez, «lehorxagoa» ere bazen. Hor minutu

inguruko aldea joan zitzaion; eta lan luzean, 4 kana-erdiko ebaki beharreko saioan, alegia, berriz ere gaizki ibili zen; izan ere, beste 2-3 adarbegi atera zitzaizkion eta aizkora ere hautsi zitzaion.

«Ez nengoen neure onean», aitortu du Otañok: «Lotean ere ez nuen zortetik izan, baina entrenamendu gogorrek egiten aritu gara eta pixka bat nekata ere banengoen. Baina argi, Txapartegi gehiago izan zen eta ez dago aitzakiarik». Buzia, hamabost egun barru, berak eta Lasak Olasagastirekin duten apustuan du orain.

Kanporaketa hori Txapartegi irabazi bazuen, bestea

Etxebestek eraman zuen, Rekondo kanporatuz. Honetan, zutikakoan leitzarrek hartu zuen aurrea; «eta hurrengoan ere 15 bat segundo kentzeko bidean nihoan, baina adarra egokitu zitzaidan», zehaztu zuen. Eta 60 ontzakoan, berriz, «sekulako bi» atera zitzaizkion ere; kortea estutu ere egin zuen, «eta hor behea jo nuen». Ondorengo lanean aldea kentzerik ez zuen izan. Bitartean, Etxebestek ez zuen hutsik egin, eta garaipena eskuratu zuen.

Rekondok, orain, gazteen mailan lehaituz jarraituko du. Lehia horretan lehen kanporaketa apirila bukaeran jokatu

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrerako talde gaztea ere koskak igoz ari da

Asteburuan 2 eta 1 irabazi dio Iruñeko Larraonari, sailkapenean aurrea hartuz



Aurrerako gazteek euren atea irmo babestu zuten. JAIONE ASTIBIA

J. ASTIBIA

Sailkapenean, pixkanaka, gorantz doa Aurrerako jubeniletako taldea. Larraonaren aurkako partidua irabazita, asteburu honetan beste hiru puntu gehitu dizkio bere taulari eta leku bat aurreratu du.

Leitzako talde gazteak 2 eta 1 eko emaitzarekin bukatu zuen Arkixkilen larunbat eguerdian jokaturako partidua. Iruñeko Larraona-Claret taldea izan zuen aurkari, hain justu une hartan beren aurretik zihon taldea. 18 zituzten iruindarrek, 15 leitzarrek, 10. eta 11. lekuan kokatuta zeuden, hurrenez hurren.

Aurreratzuz

Horrela, igaro berri den jardunaldi honetan lortu duten emaitza oso baliagarria izan

da, iruindarrei irabazi eta aurrea hartu baitiete, 10. lekua berenganatu. Orain 18na puntu dituzte biek, baina golen ariora etxekoak aurretik direla.

Partidu oso polita egin zuten, azken minutuetan egindako ahaleginak eragindako nekea tarteko «gaizki samar igo» bazuten ere. Hala adierazi zuten arduradunek: «Hauek oso gazteak dira, jubeniletan gazteenak, eta gainerako taldeak, berriz, adinez mailaz aldatzeko puntuan daudenak dira, eta hori nabaritu egiten da», arrazoituz. Baina beren atea ongi babestu zuten, eta aurkariarenean, batez ere aurreneko zatian, erabateko presioa eragin zuten. Horren ondorio izan ziren Joseba Mutuberriak eta Imanol Urkiolak egindako golak eta, bide batez, taldearen garaipena.

EGINDAKOA ▶

1. KANPORAKETA

	denborak
Unai Otaño	
45' zutik	1:33
45' etzanda	1:03
60'	2:57
4 kana-erdiko	10:57
Guztira	16:30

Luis Txapartegi

45' zutik	2:36
45' etzanda	0:58
60'	1:56
4 kana-erdiko	9:14
Guztira	14:44

2. KANPORAKETA

	denborak
Jon Rekondo	
45' zutik	1:24
45' etzanda	0:56
60'	2:53
4 kana-erdiko	12:35
Guztira	17:48

Joxe Etxebeste

45' zutik	1:22
45' etzanda	0:58
60'	1:58
4 kana-erdiko	11:10
Guztira	15:28

hitza txokoa ^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaia k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Jubilatuen irteera antolatu dute Lizarrara apirilaren 6rako, Aldaiondo sagardotegian bazkalduz eta Iruñea bisitatuz. Izen-ematea, elkarteak.

Asteasu. *Konponbide garaia* da lelopean apirilaren 1ean Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute. 15:15ean aterako da, plazatik. Izen-ematea, tabernatan eta 615 70 87 32 telefono zenbakian.

Asteasu. 18/98ko auzipetuei eta bereziki Nekane Txapartegi herritarrari elkartasuna adierazteko afaria Aitzondo elkarteak, hilaren 31n. Izen-ematea, 615 70 87 32 telefono zenbakian.

Ibarra. Bizi-Nahi jubilatuei elkarteak Iratxera irteera antolatu du apirilaren 8an, Irantzuko monastegia eta Lizarra bisitatuz.

Bazkalondoren dantzaldia eta bingo izango da. Izen-ematea, elkarteak, 28 eurotan (bazkide ez direnek, 30).

Leitzalde. Benidormera irteera antolatu du Arkupeak jubilatuei elkarteak, maiatzaren 10etik 24ra bitartean, 460 eurotan. Izen-ematea, elkarteak.

Tolosa. Udaberri dantza taldeak erromeria egingo du apirilaren 1ean. Jaiari amaiera emateko afaria antolatu dute, Abastosen. Kimetz arropa dandan eta Garikano zapata dandan daude salgai txartelak.

Tolosa. Laskorain Ikastolan 2004-05 ikasturtean DBH bukatu zuten ikasleek titulua jaso dezakete ikastolako idazkaritzan, Usabalen.

Tolosa. Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua ateratzeko proba libreak egingo dituzte Helduen Heziketa Iraunkorrean (Izaskun auzoa). Izen-ematea, bertan.

Zizurkil. Udaltalde 21



Egun-pasa eginez, Eskolaren Asteari agur

LIZARTZA ▶ Hilaren 20tik 24ra bitartean, Eskolaren XVII. Astea egin dute Lizartzako eskolan. Era guztietako ekitaldiak antolatu dituzte, txiki-entzatzat eta baita helduentzat ere: tailerrak, Punttu Txapelketa, jaialdia, bizikleta festa eta afari-merienda... Urtero, gainera, beste herri- eta lagunak gonbidatzen dituzte lizartzarrek Eskolaren Asteaz gozatzera. Aurten, Berastegiko eta Berrobiko lagunak bisita jaso dute. Eta ostiralean, asteari amaiera emateko, egun-pasa egin zuten Zientziaren Kutxagunera (argazkian). HITZA

Ernioaldea parte-hartze prozesuaren barruan, herri batzarra diagnostikoaren ondorioak eta helburuak aztertzeko. 19:30ean, Atxulondo kultur etxean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jesus Lopez Zuluetaeren koadroak. Apirilaren 21a arte izango dira ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. Dorleta Ortiz de Elgearen pinturak. Apirilaren 1a arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. *Poesia movil.* Enrique Zalduaren pinturak. Apirilaren

22ra arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

HITZALDIAK

Villabona. Parkinsoni buruzko saioa. 17:30ean, Biltoki jubilatuei elkarteak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi ebea. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.


IRRATIA

Txolarre irrateria

(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi Irratiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.


▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 232.a (2006ko martxoaren 24a).
Orrialdeak. 24.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. Uzturpe ikastolako hockey taldea.
Beste gaiak. Amalur jardunaldiak, III. Poesia Errezitaldia, Haur Liburutegia, Ibarra IX. Elkartasunezko Aerobik Maratoia, Paper Eskolakoak azterrian...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
▶ 943 65 50 04
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 253.a (2006ko martxoaren 24a).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. *Txalaparteroak, 22 urte eta gero.*
Beste gaiak. Bilgune Feminista, Aizkardiren ibilaldia, Larraulgo hirigintza lanak, Iker Goenagaren disko berria, Asteasuko Kirol Astea, Jesusen Bihotza ikastolaren 40. urteurrena...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Kale Berria 47, 3. esk.
▶ 943 69 64 50
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Joxe Balerdi.
Zorionak, attona, familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN
Juan Tolosa Tolosa (Ugarte).
Gaur 87 urte. Aupa aittona, segi horrela! Familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Neia Iturrioz (Amezketak).
Gaur 2 urte. Zorionak ebeokoen eta bereziki osaba Eneko eta izeba Larraitzzen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udalebtxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...